

BILERAKO AGIRIA

Organoa: Udalbatzarra

Batzar mota: osoko bilkura berezia

Deialdia: lehenengoa

Eguna: 2005/06/17

Ordua: Hasiera: 19:30 - Amaiera: 20:30

Tokia: Udaletxeko areto nagusia

Bertaratuak

Alkatea:

Santiago Garmendia Olano

Zinegotziak:

Santiago Fermin Garmendia Gorostidi

Joseba Mirene Garmendia Ustoa

Idazkaria:

Maria Soledad Alcayaga Garmendia

AZTERGAIA:

1.- EREIN 2005 PROGRAMAKO LAGUNTZETARAKO ESKABIDEAK
AURKEZTEKO IKERKETAK ETA DAGOKION ERAIKUNTZEN ALOKAIRU
EGOEREI BURUZKO INFORME JURIDIKOA ENKARKATZEKO
PROPOSAMENA

ESAN EGINAK

1.- EREIN 2005 PROGRAMAKO LAGUNTZETARAKO ESKABIDEAK AURKEZTEKO IKERKETAK ETA DAGOKION ERAIKUNTZEN ALOKAIRU EGOEREI BURUZKO INFORME JURIDIKOA ENKARGATZEKO PROPOSAMENA

EREIN 2005 Programaren barruan sartutako dirulaguntzen deialdiaren berri eman da; horri dagokionez, pentsatu da programa horren bidez dirulaguntza batzuk lor litezkeela Udal honen jabetzakoa den lehengo Udaletxe/Ostatu zaharra berritzeko; era horretan, herrian dagoen lokal falta nabarmena konpondu eta gaur egun eman ezin diren edo modurik egokienean ematen ez diren zerbitzuak eskaini ahal izango dira.

Adibidez, bileretarako lokal bat antola liteke eta bertan ikus-entzunezko tresnak jarri: Telebista, DVDA, Bideoa, proiektzioetarako pantaila eta abar. Hauteskunde-prozesuetan hautesleku bezala erabil liteke lokal hori. Gaur egun ez dago lehenengo zerbitzu hori emateko aukerarik, eta bigarrena berriz udal bulegoetan egin ohi da, Udaletxe berriaren lehenengo solairuan, eta hor ez dira gutxieneko irisgarritasun-baldintzak betetzen.

Oraingo haur-eskolaren kokalekua ez da egokia eta beste leku bat bilatu behar da: dagoen aukera bakarra lehenago aipatutakoa izango litzateke. Ez dago jarrita mediko eta gizarte laguntzarako inolako lokalik. Bake Epaitegia jartzeko lokalik ere ez dago, eta horri dagozkion gaiak udal bulegoetan izapidetu behar izaten dira, inolako bereizketarik egin gabe.

Udalerriko txikientzako jarduera-lokala. Herriko haur guztiak elkartu eta harremanetan jartzeko lekua izango litzateke, herrian ikastetxerik ez dagoenez eskualdeko hainbat zentrotara joaten baitira. Gaur egun ez dago horretarako inolako aukerarik.

Udaletxeko teilatupean kokatua dagoen udal liburutegiaren lokala txikiegia da erabiltzen den eginkizunetarako. Bertan udal artxiboa, Kzguneko ordenagailu-gela eta liburutegia daude. Berau Udaletxe berriko bigarren solairuan dago eta ez ditu betetzen gutxieneko irisgarritasun-baldintzak. Bestalde, udal bulegoak oraingo eraikinean utzi nahi izanez gero, teilatupeko leku hori artxiboaren eginkizunetarako bakarrik erabili beharko litzateke.

Arazo horiek denak konpontzeko zer neurri har litezkeen aztertu eta gauzatzeko, behar-beharrezkoa da aipatutako higiezin horren errenta-egoera ezagutzea.

Aldi berean, dagozkion berrikuntza-lanetarako egin beharreko finantzaketa nola bermatu litekeen ere aipatu da.

Horri dagokionez, EREIN PROGRAMAREN barruan 2005. urterako egindako dirulaguntza-deialdia aipatu da; eta udalak egin beharreko finantzaketaren parte eskuratzeko aukera gisa Udaletxe / Ostatu zaharraren ondoan dagoen Etxeberri izeneko eraikina berritzeko proiektua exekutatzeko aztergai jartzen da, etxebizitzaren gehienezko aprobetxamendua eginez, eta gerora etxebizitza horiek besterenduz, baina horretarako

eraikinaren errenta-egoera ezagutu beharko litzateke; gainera, kontuan hartu behar da obra horiek egiteko dirulaguntza ere lor litekeela EREIN PROGRAMATIK, baldin eta obra horiek lehenengo etxebizitza erosi eta bizilekua bertan hartu nahi dutenentzat egiten badira.

Hori dena lortzeko, bi eraikinak berritzeko azterketak egin, beren errenta-egoera ezagutzeko dagokien txosten juridikoa prestatu eta eragindako finken egoera fisiko eta juridikoa argitzeko beharrezko ikerketak egin behar dira.

Hori horrela, Kontuen Komisio Berezia, Administrazioa eta Gizarte Ongizate batzordeak diktaminatutakoarekin bat etorritz, udal batzarrak, aho batez, erabaki du:

A) Erabakia hartzea eta Pedro Etxaniz Rebaque goi-mailako arkitekto jaunari eskatzea Udaletxe/Ostato zaharra berritzeko azterketa egin dezala, bertan hainbat erabilera kokatu ahal izateko, herrian detektatu diren eta erabaki honen azalpenean adierazi diren premiak betetzeko, eta aldi berean horren alboan dagoen Etxeberri etxea berritzeko azterketa ere egin dezala (bi eraikinak udalaren jabetzakoak dira), bertan etxebizitzak egin eta besterentzeko, lehen etxebizitza bezala bertan bizitzen jarri nahi dutenei zuzenduak.

B) Jesus Maria Azurza Ayerbe abokatu jaunari eskatzea txosten juridikoa egin dezala, lehenengo Udaletxe/Ostato zaharraren eta honen ondoko Etxeberri Etxearen (biak udal honenak dira) errenta-egoera ezagutzeko.

C) Aipatutako abokatu horri eskatzea beharrezko ikerketak egin ditzala, aipatutako finken egoera fisikoa eta juridikoa argitzeko.

Besterik gabe bilera amaitu da, goiean adierazitako leku eta orduan, nik idazkariak fede ematen dudalarik.